

Homo fabera hausnarketa premian

Martxoan beteko dira hiru urte Soziolinguistika Klusterra eratu zela. Hamazazpi erakunde dira bazkide eta baita 113 norbanako ere. Hizkuntza normalizazio prozesuan, ezagutza soziolinguistikokoaren ikerketa eta zabalpenerako gunea da Klusterra. Erakundearen nahia da proiektu zehatzak eta arlo teorikoa orekatzea.

ONINTZA IRURETA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAK

oreka lortu nahi du, aplikazio zehatzen eta hausnarketa teorikoen artean. Horretarako sortu zen, egiten ez zena egiteko, alegia, ikerketak, gogoetak, neurketak egiteko, euskararen normalizazio prozesuan pausoak itsu-itsuan ez ematearren.

Klusterrak hiru eratako proiektuak dauzka esku artean: euskararen normalizazio beharrei erantzuten dietenak —interes orokorrekoak esango genukeenak—, bazkideen nahi edo beharrak asetzeko proiektuak eta bazkide ez diren erakunde edo eragileek eskatutako zerbitzuak. 2007 urterako 26 proiektu aurreikusi ditu, batzuk hasita daude eta beste batzuk hasteke. Proiektu horietako batzuk aukeratu eta azalduko ditugu, Klusterraren zeregina hobeto ulertuko dugulakoan.

Arrue proiektua

Klusterra Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin ari da elkarlanean Arrue proiektua lantzen, sail horrek eskatu baitzion lan hori. Hezkuntza Sailak haur eta gazteen eskola giroko hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen inguruko ikerketa egin nahi du. 2003an hasi ziren lantzen, eta orain arteko datuak jasota, aurrez zenbait ikastetxetan azterketa kualitatiboak egin nahi dituzte. Proiektua bukatu arte itxaron gabe, orain arteko emaitza nagusiak argitalpen batean bilduko dituzte, hizkuntza alorreko teknikariek erabil ditzaten.



Argazkiak Arrue proiektuko bileretakoak dira. Egitasmoan Klusterra eta Hezkuntza Saila ari dira elkarlanean. Haur eta gazteek eskolan euskara zergatik erabiltzen duten edo ez duten hausnartzen ari dira.

Beste proiektu garrantzitsuetakoa ezagunagoa da; Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketa. Kaleko ahozko erabilera neurtzen dute eta orain arte lau urtez behin egin da. Zentsuarekin eta erroldarekin bat egiteko asmoz 2006an egin dute azkeneko neurketa eta hemendik aurrera bost urtez behin egingo dute. 2006ko urrian 64 herritako

datuak jaso zituzten, Arabakoak 4, Bizkaikoak 18, Gipuzkoakoak 17, Nafarroa Garaikoak 14 eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoakoak 11. Euskal Herriko neurketa orokorraraz gain, hainbat herritako neurketa bereziak ere egin dituzte. Iaz, adibidez, 23 herritan egin zituzten euskararen erabilerari buruzko neurketa bereziak.

I+G+B euskararen normalizazioan

Mikel Zalbide Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuko buruak hala esan zuen ARGIA egindako elkarrizketan (2043. zbk, 2006-06-04): “*Homo faber* gara euskaldunok. (...) Ondo ala gaizki, ikusi-ko di(n)agu gero, baina badaezpada, eman! Egin egin behar dira gauzak, saiatu mutilak!”.

Zalbide hizkuntza-soziologiaren alorrean dagoen gogoeta teorikoaren gabezia ari zen. Horixe bera aipatu digu Iker Salaberriak, Soziolinguistika Klusterreko kudeatzailerak. Urte asko eta asko omen darmatzagu ekin eta ekin, asko egin eta gutxi hausnartu. Klusterraren sorrerako helburuetako bat horixe izan zen: gogoeta bultzatu. Soziolinguistika jakintza Euskal Herrian ez dago egituratuta; unibertsitateetan, esate baterako, ez dago ikasketa bereziturik. Klusterrak Soziologia, Psikologia, Antropologia eta beste hainbat ikasketetako jakintzak baliatu behar ditu eta berera moldatu. Salaberriak I+G+B aipatu digu: “Ikerketa, garapen eta berrikuntza inbertitzea ohikoa da ekonomian, gure espa-

rruan oso mugatua da inbertsio hori. Batetik eta bestetik ‘Klusterren moduko zerbaiten beharra’ zegoela aitortu zaigu, baina horrek eskatzen duen ahalegina egiteko prest al gaude?”. Salaberriak argi du bidea luzea dela, euskalgintzan ez gaudela ohituta epe luzeko gogoetetara, baina hausnarketa beharra gero eta nabarmenagoa dela azpimarratu du. Adibideetara joz, familia transmisioak, lan esparruak, gazteen erabilerak... marko teorikoen beharra dute. Gaur egungo gizarte moldagarriak are eta gogoeta gehiago eskatzen omen digu, teknologia berrien munduan bizi garelako, etorkinak ditugulako gure artean, Europar Batasuneko markoan gaudelako... “Hausnarketa, hasi administrazioetik eta euskara elkarreteraino”, dio Salaberriak.

Klusterraren proiektuen artean dago Hausnartu egitasmoa. Alegia, gizarte zientzietako profesionalek euskal soziolinguistikaren eremuan, ikuspuntu teorikotik landutako artikulu zientifikoak sor ditzaten bultzatzea.

“Tkerketa, garapen eta berrikuntza inbertitzea ohikoa da ekonomian, gure esparruan oso mugatua da inbertsio hori.

Batetik eta bestetik ‘Klusterraren moduko zerbaiten beharra’ zegoela aitortu zaigu, baina horrek eskatzen duen ahalegina egiteko prest al gaude?”

IKER SALABERRIA

tetik, egiteko dagoen horren gainean hausnartu. Nora jo behar da gazteen erabileran eragiteko? Horixe galdera.

Euskararen normalizazio prozesuan chunka teknikari eta profesional ari da lanean eta Klusterraren kezketako bat horien formazioa da. Batetik, profesionalei formaziorako dagoen eskaintza helaraziko diete, eta bestetik, profesionalok lanerako dituzten formazio gabeziak atzemango dituzte.

Etorkinak, Txepetx eta Hiznet

Hasteke dauden proiektuak dira hiruak ere. Euskararen bilakaeran eragina du etorkinen integrazioak eta hizkuntza portaerak. Horregatik, Klusterrak orain arte garatutako esperientziak bilduko ditu eta berauek aztertu. Txepetxi dagokionez, ordezkapena eteteko euskal komunitatearen nuklearizazio eta trinkotzearen ideian sakonduko du Klusterrak. Gutxi landutako teoria hori ikertu nahi du eta baita aplikazio praktikorako metodoak landu ere.

Bestalde, Asmoz Fundazioak antolatzen duen Hiznet ikastaroko ikasleek ikastaro amaieran hainbat lan egingen dute eta Klusterrak lan horiek zabaltzeko asmoa du. ■

Babeslea: Hernaniko Udala

Bestalde, Eralan proiektuak azken urteotan indarra hartu duen esparrua jorratzen du: lan mundua. Egitasmoak hiru urteko iraupena izango du eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiekin ari da lanean Klusterra. Lan esparruko hainbat erakunde publiko zein pribatu aukeratu dituzte, dagoeneko euskara planak dituztenak, eta helburua euskara erabiltzeko oztopo diren faktoreak identifikatzeko eta horietan positiboki eragiteko lehen esperientzia pilotoa egitea da.

“Normalizazio Esperientzia Aurreratuen Kasuak” bilketa proiektuak honakoa egingo du: hizkuntza normalizazio planak ondo kudeatu

dituzten enpresa, erakunde edo ikastetxeak aukeratu eta arrakastarako giltzarriak zeintzuk izan diren gogotatu. Kasu arrakastatsu horien berri zabaltzeko asmoa dago euskara normalizazio eremuan zein soziolinguistika alorrean dabiltzan eragileen artean eta baita unibertsitateetan ere.

Gazteen erabilera perspektiba eta prospektiba jarri diote izena beste proiektu bati. Pisuzko arloa da gazteen euskararen erabilerarena. Hainbat erakundek eta elkartek jada praktikan jarri ditu zenbait ekimen, hala nola, Kuadrillategi proiektua. Klusterrak orain arteko ekimen eta gogoeta denak bildu nahi ditu batetik, eta bes-



Hernaniko Udala

Euskararik egokiena, erabiltzen dena
www.hernani.net